

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak funtzionatzea nahi badugu ezinbestekoak diren zenbait jarduera egin beharko ditugu, esaterako gure jolasak erakargarriak izatea lortzea edota lehiaketa egiteko bezero zein partaideak lortzea.

Funtsezko baliabideetan aipatu moduan hiru taldekideok zenbait baliabide intelektual ditugu eta hauen bitartez ahalik eta zeregin gehien egitea lortzea da gure helburua.

Ezinbestekoa izango da udaletxeei gure zerbitzua saltzea, beraiek baitira gure oinarritzko bezeroak. Horretarako gai honetaz arduratuko den pertsona bat beharko dugu. Funtsezko baliabideetan aipatu dugun moduan, pertsonekin elkarreragiteko erraztasuna Garazik duenez, bera arduratuko da jarduera hau burutzeaz.



Carmenek duen irudimen handian oinarrituz, jokoak egiteko zeregina Carmenen esku utziko dugu, ziur gaude oso joko dibertigarri eta erakargarriak sortuko dituela parte hartzaileak goza dezaten.

Umeekin lanean aritu behar dugula ikusita eta begirale-jakituriaren esperientzia taldea osatzen dugun denok daukagula jakinda, denok arduratuko gara lehiaketan zehar umeekin interaktuatzeaz. Horregatik, begirale moduko batzuk izango gara: momentu bakoitzean egin behar diren gauzetan lagunduko diegu, zalantzak argituko dizkiegu...



Azkenik sare sozialak kudeatzeaz, emailak erantzuteaz, galdetegia egiteaz, hilabetero jostailu-dendekin kontaktazeaz eta lehiaketako materiala antolatu zein jartzeaz Saioa arduratuko da. Hauek lan astunak eta denbora luzeak direla jakinda Carmen eta Garazik ere lagunduko diote edozertan. Horrela gure artean zalantzak argituko ditugu, Saioak norbaiten laguntzarik behar badu taldeko beste pertsonak berari laguntzeko prest egongo dira eta bide batez talde-lana gure artean sustatzea lortuko dugu.

